


## Politikak nagusiki asperdura, mesfidantza eta axolagabekeria eragiten ditu EAEko nerabeengan

15 eta 17 urte bitarteko nerabeei zeintzuk diren politikak eragiten dizkien bi sentimendu nagusiak galdetu zaie. Nerabeen erdiek (% 50) politikak asperdura sortarazten diela azaldu dute, % 41ek mesfidantza aipatu dute eta % 37k axolagabekeria sentitzen dutela adierazi dute. Gainera, % 19k politikak haserre sentiarazten diela diote, % 14k batez ere interesa sentitzen dutela azaldu dute, % 7k konpromisoa eta, azkenik, % 4k gogo bizia.

Politikak eragiten duen asperdura nerabezaroan dago hedatuago, beste adin taldeekin konparatuz gero. 18 urtetik gora, aldiz, mesfidantza da nagusia politikaz ari garenean.



Datuon analisia [Gazteen Euskal Behatokiak](#) egin du, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariatzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) 2012an burututako bi ikerketaren emaitzak oinarri hartuta. Ikerketa horiek hauexek dira: [Kultura demokratikoa](#) eta [Gazteen Argazkiak 16](#), azken hori Gazteen Euskal Behatokiako egina.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

